

MUST +PRO TOPAGUNE PROFESIONALAREN 1. EDIZIOKO PROGRAMAZIOAN PARTE HARTUKO DUTEN MUSIKA PROPOSAMENAK HAUTATZEKO DEIALDIA

Euskal Herriko Musika Bulego Elkarteak, Kutxa Fundazioaren laguntzarekin, Must +Pro Euskal Herriko musika sektore profesionalaren topagunearen lehen edizioko programazioan parte hartzeko musika proposamenak aurkezteko epea ireki du.

Jardueraren xedea.

Must +Pro topaguneak katalizatzaile bat izan nahi du, metatutako esperientziaren eta partekatutako ikaskuntzaren bidez testuinguru egokia ezarriko duena, Euskal Herriko musika-sektorea hazi dadin eta kalitateari eta lankidetzari dagokienez aurrera egiteko.

Euskal Herriko musika sektore profesionalaren urteroko topagunea da Must +Pro, eta bere programan hainbat showcase biltzen ditu, zuzeneko musikaren sektorea dinamizatzeko eta dagoen talentua balioan jartzeko.

Lehenengo edizio honetan, Euskal Herriko hainbat artistak beren musika proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte topagunera bertaratzeko direnen eta publiko orokorraren aurrean, argitalpen-, sustapen-, ordezkari- edo kontratazio-akordioak sustatuz.

Showcase-aren formatua.

Hautatutako 10 musika proposamenek 30 minutuko zuzeneko aurkezpena egingo dute Must +Pro topagunera bertaratzeko profesionalen eta publiko orokorraren aurrean.

Showcaseak arratsaldean egingo dira eta soinu-probak goizean egingo dira. Zuzeneko emanaldiaren arteko aldaketek ez dute 20 minutu baino gehiago iraungo.

Hautatutako artistek Musika Bulegoaren laguntza ekonomikoa jasoko dute dieten eta joan-etorrien gastuei aurre egiteko.

Oinarrizko laguntza 300 €-koa izango da showcase bakoitzeko. Zenbateko horri 50 € gehituko zaizkio pertsonako taldeak hiru kide edo gehiago baditu (adibidez: 3 pertsonako talde batek 450 € jasoko ditu, 4ko batek 500 €, etab.).

Laguntza hau kobratzeko, ezinbestekoa izango da artistaren edo taldearen legezko ordezkariaren izenean faktura bat aurkeztea.

Eguna eta lekua.

Showcaseak irailaren 30ean eta urriaren 1ean egingo dira, Kutxa Fundazioaren Kluba aretoan (Tabakalera, Donostia). Jardunaldi bakoitzean 5 emanaldi izango dira, 17:00etatik 23:00etara bitarte.

Hautatutako artisten banaketa eta ordena ez ekitaldia baino 2 aste lehenago arte jakinaraziko.

Nori dago zuzenduta.

Zuzenean aurkeztu nahi dituzten proposamen musikalak dituzten artistak.



Aurkezteko baldintzak.

Deialdira aurkezten diren musika-proposamenek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. EP edo album bat eta gutxienez 30 minutuko musika originala argitaratuta izatea.
2. Barruko espazio eszenikoetara egokitutako proposamen musikala izatea.
3. 2025ean eta 2026an zehar zuzenekoak emateko disponibilitatea izatea.
4. Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea, lanbide-jarduera musikaren eta/edo zuzeneko musika-emanaldien eremuari dagokion epigrafean.
5. Fakturatzeko gaitasuna izatea.
6. Izena emateko formularioa betetzea.

Epaimahai profesionala eta hautaketa-irizpideak.

Musikaren sektorean adituak diren 2 pertsonak osatutako epaimahai profesional batek, Musika Bulegoa eta Kutxa Fundazioaren artean aukeratuak izago direnak, aukeratuko ditu Must +Pro jaialdiaren lehen edizioko showcase-etan parte hartuko duten 10 musika proposamenak.

Epaimahai profesional horrek honako kontzeptu hauek baloratuko ditu:

1. Ikuskizun, album edo EP estreinaldiak.
2. Artistaren nortasuna eta musika-ikuskizunaren originaltasuna.
3. Arrisku artistikoa eta artistaren edo bandaren ibilbidea.
4. Ordezkaritza-enpresaren sendotasuna.
5. Saltzeko ahalmena, bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa.
6. Proiektuaren helburuen azalpena (xede dituen programatzaileak, lurralde-eremua, etab.) eta helburu horiek lortzeko Must +Pro topagune profesionaletik igarotzeak duen garrantzia.
7. Genero-berdintasuna eta adin-aniztasuna.
8. Euskal Herrian sortu, ekoitzi edo garatutako proposamenak

Estilo eta genero guztietako proposamenak aurkeztu ahal izango dira.

Izena emateko formularioa.

Ezinbestekoa da [izena emateko inprimakia](#) betetzea.

Epeak.

Proposamenak 2025eko uztailaren 1eko 10:00etatik 2025eko uztailaren 29ko 23:59etara aurkeztu ahal izango dira. Egun horretatik aurrera ez da proposamenik onartuko.

Must +Pro jaialdiaren 1. edizioko showcasean aurkezteko aukeratutako musika proposamenak 2025eko abuztuko lehen hamabostaldian jakinaraziko dira.



**MUSIKA
BULEGUA**

Batzen
gaituena.

**MUST
+PRO** Musikaren
Topagune
Profesionala

**KUTXA
FUNDA
ZIOA**

Informazioa eta kontsultak: proiektuak@musikabulegoa.eus

